

DBH 1 HAUTAZKOAK 2024/2025

A) IKASTURTE ERDIKOAK

ARTISAUTZA

Teknika eta tresna desberdinak erabilia esku lanak egingo ditugu. Orokorrean objektu dekoratiboak izango dira.

CLUB DE LECTURA

Irakurtzeak duen garrantzia sobera ongi ezagutzen dugu denok. Izan ere, ikerketa askok frogatzen dute ikasleen errendimenduarekin erlazionatuta dagoela: irakurketak ulermen maila hobetzen du, ikasketa erraztu, sormena piztu, lexikoa aberastu... Irakurtzeko gaitasuna zenbat eta hobea izan, gehiago irakurtzen da; eta zenbat eta gehiago irakurri, gogo handiagoa liburu bat esku artean izateko.

Horregatik, irakurketa kluba bezalako ikasgaiak bultzatzea ezinbestekoa da. Horrelako foroen giltzarria taldea bera da. Irakurketa sustatzeaz gain, literatura erakargarria izatea bilatzen da, ikastetxeko liburutegia ardatz izanda.

Ikasleek ulermena garatuko dute, irakurketa ohitura batzuk hartuko dituzte eta taldekideen komunikazioa landuko dute, euren sentimenduak, ideiak eta hausnarketak partekatuz. Horretarako, idazle berri eta irakurgai mota desberdinak landuko dira eta ikasleek gaitasun kritikoa eta iritziak ematekoa garatuko dituzte.

ENGLISH CLUB

Ingelesean interesa duten ikasleei zuzenduta dago tailer hau. Helburu nagusia ahozotasuna lantzea izango da batez ere. Horretarako, ikus-entzunezko euskarrietatik abiatuko gara ingelesa hizkuntzan eta kulturen murgiltzeko. Abestiak, eskulanak, telesailak, filmak, antzezlanak, jokoak, errezetak, spelling contests etab. erabiliko dira.

HEZIKETA DIGITALA ETA IKT

Ikasgai honekin aurrerapauso bat eman nahi dugu eta teknologia berriak modu kontziente batean erabiltzen ikastea bultzatuko dugu institutuko ikasle txikienekin hasita. Eskolan eta gizartean erabilera txarren ondorioak ikusten hasiak gara eta honi aurre egiteko asmoz, 2022-2023 ikasturtean martxan jarri dugun Heziketa Digitala HernaniBHIn proiektuaren gehigarri bat bezala planteatzen dugu jakintzagaia.

Ikasgaiaren helburu nagusiak, Teknologia berriak modu kontziente batean erabiltzen ikastea; Pentsaera Konputazionalaren eremuak zeintzuk diren jakitea eta kontzienteki erabiltzea; eta digitalizazio alorrean, gaur egungo munduan aritzeko beharrezkoak diren sare aplikazioak eta ordenagailuaren ezaugarriak ikasiko ditugu. Etorkizunean izango dugun mundu akademikorako eta lan mundurako presta zaitez!

ONLINE MEKANOGRAFIA

Online programa berri eta polit batekin, Kluppy, learn by playing, mekanografia ikasi eta zure lanak azkarrago egin. Mundu digital honetan, idazketa digitala behar-beharrezkoa da eta jolasaren bidez ikasiko dugu. Konkistatu planetak, desblokeatu mailak eta lortu izarrak! 2022-2023 ikasturtean martxan jarri genuen Heziketa Digitala HernaniBHI proiektuaren gehigarri bat bezala planteatzen dugu jakintzagaia.

Ikasgaiaren helburu nagusia, gaur egun hain garrantzitsua den idazketa digitala jolasen bidez ikastea da. Horretaz gain, teklatuaren funtzionamendua eta tekla guztien funtzioak ere ikasiko dituzte.

UKELELE ETA MUSIKA TRESNEN ERAIKETA

Ukelele klaseak emango ditugu modu praktikoa. Beti gertuko kantekin, ikaslearen interesetik abiatuta. Akordeak, melodiak eta akonpainamendua lantzea era aktibo batean sustatzea dugu helburu.

Musika gelan instrumentuak egingo ditugu eskura dauzkagun materialekin. Soinuaren sorkuntzaren xedeak ulertu asmoz, musika tresnen taldekatzeak ezagutuko ditugu modu praktikoa batean. Kurtso bukaerako kontzertuan kanta bat interpretatuko dugu.

ZIENTZIA TAILERRA

Zientzialarien ezaugarri nagusia jakin-mina izatea da. Edozein pertsonari hainbat galdera etortzen zaizkio burura bere inguruaren behaketa eginda: Nola sortzen da sumendi bat? Zerez osatuta dago odola? Nola sortuko genuke fosil bat? Zer ikus daiteke mikroskopia batekin? Nola sortzen da etxean erabiltzen dugun gazta? Zeluletako DNA ikus dezakegu?

Horrelako zalantzak eta zuk izan ditzakezun beste hainbat argitzen saiatuko gara laborategia ardatz duen tailer praktikoa honetan, esperimentu ezberdinak erabiliz.

B) IKASTURTE OSOKOAK

FRANTSESA I

Ikasgai honen helburua idatziz zein ahoz, jarioetasunez eta zuzentasunez, frantses hizkuntza menperatzea da. Hizkuntza guztietan bezala bai gramatika, bai entzumenak, bai ahozko ariketak eta idazlanak egingo dira baina ahozko komunikazioari emango zaio lehentasuna. Klaseetan pelikuak ikusiko dira, bideoak, abestiak landuko dira; ikasleek bideoak sortuko dituzte eta proiektu ezberdinak egingo dituzte, bai frantses kultura eta kulturartekotasuna lantzeko ere.

Azken hiruhilekoan egun guztirako txangoa egingo dugu gure ikasleak frantses hiztunekin eta frantses kulturarekin zuzeneko harremanean jartzeko xedez.

OSASUN FISIKOA ETA EMOZIONALA

Jarduera fisiko osasuntsu eta aktiboa sustatzea da gure helburua, bizi kalitatea eta osasuna hobetzeko. Horretarako, jarduera fisiko, jolas, eta kirolak egingo ditugu gaitasun desberdinak landuz eta aisia era aktiboan egiteko aukerak zabalduz emozioei garrantzia emanez.

Helburua da harremanetan trebatzea, parte-hartzea sustatzea, elkarlanaren balioaz jabetzea, sentimendu eta emozioak kanporatzea. Hori guztia gorputzaren mugimenduak baliatuz eta buru-ideiak aktibatuz.

TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIORAKO HASTAPENAK

Ikasgai nagusiki praktikoa da. Teknologia arloko gai ezberdinak (elektrizitatea, mekanika, ideien adierazpena...) ikusi ondoren, tailerrean modu praktikoan landuko dira, taldeka proiektu ezberdinak sortuz eta bertako erremintak eta tresnak erabiliz.

Ikaste-ingurune pertsonalaren digitalizazioa (G-Suite ingurunea) eta programazioaren hastapenak ere landuko dira, micro:bit plaka programagarriarekin ariketa eta proiektu ezberdinak burutuz, betiere modu praktikoan.

Nori zuzendua

- Tailerrean erremintekin eta eskuekin lan egin nahi duenarentzat.
- Taldean lan egitea gustoko duenarentzat.
- Sormena eta irudimena teknologia berrieekin (micro:bit plaka, MakeCode...) landu nahi dituenarentzat.